- 80-2019: Declaración residuos solido urbano de vehículo.
- 81-2019: Declaración de residuos Solido Urbano de vehículo.
- 82-2019: Delegación de facultad para autorizar matrimonio.
- 83-2019: Solicitud de licencia municipal de obra para reforma de cocina y baño en atxeta, 7-2º DCHA.
- 84-2019: Solicitud de licencia municipal de obra para arreglo de chimenea en Arene, 41.
- 85-2019: Solicitud de licencia municipal de paso de caminos para saca de madera por el camino municipal de andoleta a la carretera foral BI-625.
- 86-2019: Solicitud de Trabajador Municipal para adaptación de jornada de trabajo para trasladar al colegio a hijo menor.
- 87-2019: Solicitud de licencia municipal de paso de caminos para saca de madera por el camino municipal de basakoetxe a la carretera foral BI-625.
- 88-2019: Solicitud de licencia municipal de obra para adecuar un nuevo camino de entrada a la parcela en uribarri, 5.
- 89-2019: Restauración de la legalidad urbanística en relación a la implantación de un invernadero en el barrio Beaskoetxe de Zollo.
- 89bis-2019:Aprobación definitiva del proyecto de reparcelación de la unidad de ejecución 3 de Uribarri (U.E.3.U.).
- 90-2019: Contratación para la redacción de un anexo al proyecto de ejecución de la rehabilitación de Oxinburu y asesoramiento en el proceso de licitación de las obras.
- 91-2019: Proceso de Contratación de asfaltado de caminos publicos.
- 92-2019: Solicitud de licencia municipal de obra para arreglo de cubierta en Aspiuntza, 3.
- 93-2019: Solicitud de licencia municipal de obra para pintado de fachada en aspiuntza, 3.
- 94-2019: Solicitud de licencia municipal de obra para realizar una rampa y embaldosar el porche en Telleri, 1.
- 95-2019: Solicitud de licencia municipal de paso de caminos para saca de madera por el camino municipal de zollo-elexalde a la carretera foral BI-4521.
- 96-2019: Solicitud de licencia municipal de 1ª utilización de vivienda en la parcela 5B de la U.E.2.U. de Uribarri .
- 97-2019: Solicitud de licencia municipal de obra para construcción de pabellón en la parcela 100 del poligono 4 en Basakoetxe.
- 98-2019: Solicitud de licencia municipal de obra para renovar la escalera en Zubitxeta, 1.
- 99-2019: Contratación del servicio de transporte a las piscinas de Ugao para el alumnado del colegio público de Arrankudiaga.
- 100-2019: Solicitud de licencia municipal de obra para realizar un garaje prefabricado en Uribarri, 43.

Ane Miren Esparza zinegotziak (EAJ), komentatzen du, garbitasun kontratuak egiten direnean, dekretuan beti aipatzen dela Disdira empresa bere garaian lan hori egiten zuela. Bere ustez ez da beharrezkoa beti hori aipatzea.

Galdetzen du ere, kontratuetan, prezioa kontuan hartzerakoan BEZ edo BEZ-a barik egiten den.

Idazkari Kontu-Hartzaileak erantzuten dio, kontratazioaren arauak aplikatzerako orduan BEZ-a ez dela kontuan hartu behar. Hori bai, oraintzerakoan kopuru osoa kontuan hartu behar dela.

## **8. KLIMA LARRIADIARI AURRE EGITEKO EH BILDUK AURKEZTUTAKO MOZIOA.**

Moción presentada por EH Bildu para hacer frente al cambio climático.

Aurkeztutako mozioaren testua hau da:

### **KLIMA ALDAKETAREN AURKA KONPROMISO ZEHATZAK HARTZEKO MOZIOA**

#### **ZIOA**

Larrialdi Klimatikoa datozen urte eta hamarkadetako agenda baldintzatzeraz etorri da, gure ongizatearentzako mehatxu nagusienetarikoa baita, benetako zibilizazio erronka bat. Mundu mailako eta Euskal Herriko egoera eta joerak ez du baikortasunerako tarte handiegirik uzten, are gutxiago

bilakaeraren inguruko abisuak eta jakinarazpenak igorri ditu. Aldaketa klimatikoa, Berotegi geldotasunerako. Gazteentzako dagoeneko kezka nagusia bihurtu da, ez bakarrik

Azken urte luzeetan komunitate Efektuzko Gasen isuri masibo baten ondorioz gertatzen ari da, eta isuri horien arrazoi nagusia, bakarra ez bada ere, gure metabolismo sozioekonomikoa zientifikoak larrialdia, baita gaiari ematen zaion erantzun politiko eskasa ere. Aldaketa klimatikoaren mantentzeko erretzen ditugun baliabide fosilen erabilpenean datza. Aldaketa klimatikoa, beraz, guk eragiten dugu nagusiki, eta dagoeneko ondorioak atzematen hasiak gara.

Urtez urte argitaraturiko txostenetan, egoera kaskartzen ari denaren zantzuak ditugu. Nazioarteko hainbat erakunde eta lantaldeek argitaratzen dituzten txostenetan gero eta argiago esaten da klima eta energia politikan, eta ondorioz gure egunerokotasunean, eraldaketa sakon bat, iraultza bat, eman behar dela, baldin eta egoerari aurre egin nahi baldin badiogu eta aldaketa klimatikoaren efektu bortitzenak pairatu nahi ez baditugu. 2018ko urrian, IPCC Klima Aldaketari Buruzko Gobernu Arteko Taldeak, plazaraturiko txosten berezi batean, tonua altxa zuen indarrean dauden politikek behar besteko anbizioz ez dutela salatuz, eta elektrizitatearen, nekazaritzaren, garraioaren eta industriaren sektoreetan aurrekaririk gabeko aldaketak eskatuz.

2018ko azaroan, Nazio Batuen Ingurumen Panelak aditzera emandako txostenak egoera larria dela ohartarazten du, esfortzuak areagotzen ez badira hondamendira goazela azpimarratuz.

Gaia bere osotasunean ikusirik, argi dago ataka batean gaudela eta orain arte proposatu eta egindakoa berraztertu beharrean gaudela. Ahal dela, eta industria iraultza aurretiko egoerarekin alderatuta, 1,5°Cko tenperatura igoera ez gainditzea helburutzat zuen 2015eko Parisko Akordioa betetzeko, orain arte emandako pausoak guztiz ez-nahikotzat jo beharrean gaude.

Hasieran genion bezala, zibilizazio erronka baten aurrean gaude, eta aurrez aurre Jaurkitzearen eragin esparru eta ahalmenak gainditzen dituen lanak baditugu ere, egoerak partekaturiko esfortzu bat eskatzen du.

Gure ustetan, ipar orratza ahalik eta azkarren karbono isurietan neutroa izango den Euskal Herri baterantz begira jarri beharrean gaude, eta horretarako ezinbestekoa da eraldaketa azkar eta eraginkorrak egitea. Prozesu honek gure jendartearen inplikazio anitz eta sakonak ekarriko ditu, bai ehun produktiboan, bai mugikortasunean, bai lurralde antolamenduan eta abar, horregatik deritzogu pausu azkar eta eraginkorrak ematea ezinbestekoa dela.

Mozio honen bitartez, egoeraren larritasuna aitortzea dugu helburu, Larrialdi Klimatikoari behar besteko arreta ipintzeko asmoarekin, aurrerantzean politika publiko guztiak Larrialdi Klimatiko egoeraz kutsa daitezen.

## **Hori horrela, Arrankudiaga-Zollok EH Bildu Udal taldeak honako MOZIOA aurkezten du:**

Arrankudiaga-zolloko Udalak,

1. Larrialdi Klimatiko egoera deklaratzeko du.
2. Eusko Jaurlaritza larrialdi klimatiko egoera deklaratzera, eta honi aurre egiteko beharrezkoa den karbonogabetze prozesua 2040. urtera aurreratzeko moduko plangintza eta politikak abiatzera premiatzen du.
3. Eusko Jaurlaritza aldaketa klimatikoaren eraginez pairatuko ditugun ondorioetara egokitzeko neurriak hartzera premiatzen du.
4. Bere eskumenen baitan, Aldaketa Klimatikoari aurre egiteko politika eraginkorrak garatzeko konpromiso irmoa adierazten du.
5. Aldaketa Klimatikoa eragiten duten udal eskumeneke faktore guztien inguruko diagnosi bat eta 4/2019 Jasangarritasun Energetikoaren Legearen garapena udalerrira egokitzeko hurbilpen lan bat egingo du 8 hilabeteko epean.
6. Udalerriko egoeraren diagnosa kontuan hartuta, prozesu partehartzaile bat abiatuko du herritarren, auzoen eta beste edozein eragileren ekarpenak barne bilduko dituen plangintza bat osatzeko 2020. urtean zehar.
7. Udalerriko herritar, eragile eta auzoekin elkarlanean, plangintza hau aurrera eramateko beharrezkoak diren bitarteko tekniko zein ekonomikoak bermatzeko konpromisoa hartzen du, bere gaitasunen arabera izanik plangintza gauzatzeko epea.
8. Larrialdi klimako egoera dela eta, deitzen diren mobilizazio eta ekimenetan parte hartzera animatzen ditugu herritar guztiak.
9. Bando baten bitartez emango die mozio honen berri herritar, auzoei.
10. Bizkaiko Foru Aldundiari, Eusko Jaurlaritzari eta Espainiako trantsizio ekologikorako ministerioari bideratuko die onartutako mozioa.

## **MOCIÓN PARA LA ADOPCIÓN DE COMPROMISOS CONCRETOS CONTRA EL CAMBIO CLIMÁTICO**

### **MOTIVO**

La Emergencia Climática ha llegado para condicionar la agenda de los próximos años y décadas, al constituir una de las mayores amenazas para nuestro bienestar, un verdadero reto para nuestra civilización. La situación y la tendencia a escala mundial, y también en lo que a Euskal Herria respecta, no ofrece demasiado margen al optimismo, y menos aún a la pasividad. Para la juventud se ha convertido ya en la preocupación principal, y no sólo la emergencia, sino también la escasa respuesta política que se le ofrece al tema.

Durante estos últimos largos años la comunidad científica ha hecho llegar diversos avisos y comunicaciones sobre la evolución del cambio climático. El cambio climático está ocurriendo a consecuencia de la emisión masiva de Gases de Efecto Invernadero, y la razón principal de esas emisiones, aunque no sea la única, reside en la utilización de los recursos fósiles que quemamos para mantener nuestro metabolismo socioeconómico. El cambio climático, por lo tanto, lo provocamos nosotras y nosotros mayormente, y ya hemos comenzado a percibir sus consecuencias.

En los informes que se elaboran anualmente, hay indicios de que la situación ha comenzado a empeorar. En diversos informes publicados para diferentes instituciones y comisiones se señala de manera cada vez más clara que se precisa una profunda transformación, una revolución, en las políticas climáticas y energéticas, y por ende, en nuestra cotidianeidad, si pretendemos enfrentarnos a la situación y no queremos padecer los efectos más agresivos del cambio climático. En octubre de 2018, en un informe publicado por el Grupo Intergubernamental sobre el Cambio Climático IPCC, dicho grupo elevó el tono señalando que las políticas en vigor no tienen suficiente

ambición, y demandando cambios sin precedentes en los sectores de la electricidad, la agricultura, el transporte y la industria.

En noviembre de 2018, el informe dado a conocer por el Panel Ambiental de las Naciones Unidas advertía que la situación es grave, subrayando que si no se redoblan los esfuerzos nos dirigimos hacia una catástrofe.

Contemplando el tema en su integridad, está claro que nos encontramos en un atolladero, y que se debe revisar lo propuesto y lo realizado hasta ahora. A ser posible, y en comparación con la situación anterior a la revolución industrial, al objeto de cumplir los Acuerdos de París del 2015 que tenían como objetivo no superar un ascenso de la temperatura de 1,5°C, hemos de considerar que los pasos que se han dado hasta ahora son totalmente insuficientes.

Tal y como señalábamos al inicio, estamos ante un reto, y aunque nos hallemos ante una tarea que rebasa el ámbito de influencia y las capacidades del Gobierno Vasco, la situación reclama un esfuerzo compartido.

En nuestra opinión, debemos marcar el rumbo cuanto antes hacia una Euskal Herria que sea neutra en emisiones de carbono, y para eso es imprescindible llevar a cabo una transformación rápida y efectiva. Este proceso conllevará en nuestra sociedad cambios diversos y profundos, tanto en el tejido productivo como en la movilidad, así como en el ordenamiento territorial, etc., por lo que creemos que es imprescindible dar pasos rápidos y efectivos.

Mediante esta moción, nos marcamos como objetivo reconocer la gravedad de la situación, a fin de fijar la atención necesaria en la Emergencia Climática, al objeto de que en adelante todas las políticas públicas respondan a la situación de Emergencia Climática que vivimos.

Por todo lo cual, el grupo municipal de EH Bildu de Arrankudiaga-Zollo presenta la siguiente MOCIÓN:

El Ayuntamiento de Arrankudiaga-Zollo,

1. Declara la situación de Emergencia Climática.
2. Insta al Gobierno Vasco a declarar la situación de emergencia climática y a poner en marcha un plan y unas políticas que posibiliten el adelantamiento del necesario proceso de descarbonización al año 2040 para hacer frente a la situación actual.
3. Insta al Gobierno Vasco a que adopte las medidas pertinentes para adaptarnos a los efectos que padeceremos como consecuencia del cambio climático.
4. Dentro de sus competencias, señala su firme compromiso de desarrollar políticas efectivas para hacer frente al Cambio Climático.
5. Realizará en el plazo de 8 meses un diagnóstico en torno a todos los factores de competencia municipal que provocan el cambio climático y un acercamiento para adaptar al municipio la Ley 4/2019 de Sostenibilidad Energética.
6. Teniendo en cuenta el diagnóstico de la situación del municipio, pondrá en marcha un proceso participativo a fin de completar a lo largo del año 2020 una planificación que recoja las aportaciones de la ciudadanía, de los barrios o de cualquier otro agente.
7. En colaboración con la ciudadanía, agentes y barrios del municipio, se compromete a garantizar los recursos tanto técnicos como económicos necesarios para llevar adelante dicha planificación, siendo el plazo para su materialización conforme a sus capacidades.
8. Anima a toda la ciudadanía a participar en las movilizaciones e iniciativas que se convoquen con motivo de la situación de Emergencia Climática.
9. Informará mediante un Bando sobre esta moción a la ciudadanía y a los barrios.
10. Remitirá esta moción aprobada a la Diputación Foral de Bizkaia, al Gobierno Vasco y al Ministerio español para la Transición Ecológica.

Bere aldetik, EAJ udal taldeak beste mozio bat aurkezten du:

## EUSKO JAURLARITZAREN ADIERAZPEN INSTITUZIONALA LARRIALDI KLIMATIKOARI BURUZ

Euskadi erkidego aitzindaria da garapen jasangarriaren aldeko konpromisoan, ingurumenarekiko errespetuan eta klimaren aldaketaren aurkako estrategian. Erakunde publikoek bultzatutako ekimenek euskal gizartearen babesa izan dute beti, euskal gizarteak kontzientzia eta konpromisoa erakutsi baitu helburu global honekin.

Klima aldaketari buruz adostasuna badenez nazioartean –krisialdiak eta hondamendiak eragin bailitzake aldaketa horrek planetako hainbat lekutan–, iruditzen zaigu gure arreta guztia eskatzen duen erronka zail eta premiazkoenetako bat dela egoera hori. Karbonoan ekonomia neutrorantz doa euskal gizartea eta bere egin du baduela erantzukizuna klima aldaketa arintzeko eta horretara egokitzeko politikak abiaraztean konpromiso sakon eta zorrotz batekin.

2002-2020 Garapen Iraunkorraren Euskal Ingurumen Estrategia eta bost urtetik behin onartutako esparru programek zehaztu dute euskal politika gai honetan. Gure ingurumen politika guztiz dator bat 2030 Agendarekin, Nazio Batuen Garapen Jasangarrirako Helburuekin eta Europar Batasunaren strategiarekin.

Eusko Jaurlaritzak 2015ean onartu zuen “Klima 2050” Euskadiren klima aldakari buruzko estrategia, baita 2030 Estrategia Energetikoa ere 2016ko uztailean, eta bere egin zuen partekatutako erantzukizunaren printzipioa, printzipio horrek gidatzen ditu-eta isurketen murrizketei eta trantsizio energetikoari buruzko nazioarteko politikak.

Klima aldaketaren kontrako borroka mundu osoko erronka bat da, guztioi eragiten diguna, batez ere, herritarrengandik hurbilen gauden eta herritarren eskakizun eta beharrak ondoen ezagutzen ditugun erakundeoi. Horregatik, nazioarteko erakundeek azpimarratu dute “Eskualdeen Konpromisoa” funtsezkoa dela klimaren krisialdiari ekiteko. Mende honetan zehar Euskadik ekintzen bitartez erakutsi du konpromiso hori.

Badakigu lehen ekintza-lerroa garela klima aldaketaren aurkako borrokan eta ingurumenaren babesean gure planetan. “Think global, Act local” premisatik abiatuta, konpromisoa hartu dugu tokiko konponbideak eta erantzunak bilatzeko lehentasun global honi irtenbideak emate aldera. Garrantzi praktiko handia izan du Udalsarea 2030 ekimena abiarazteak, ekimen horren bitartez txertatu baitira helburu klimatiko horiek hainbat euskal udaletan.

Sarean lan egiteko filosofia horri erantzunez, Euskadik era aktiboan hartzen du parte “The Climate Group” delakoan, klima-aldaketaren aurkako estatu, komunitate eta eskualdeen aliantzan, hain zuzen. Aliantza horretako kideok 320 milioi pertsona baino gehiago ordezkatzeko ditugu, mundu osoko biztanleen %12 baino gehiago, hain zuzen.

Aliantza horren ko-presidente gisa, Lehendakariaren ordezkariak New Yorkeko mundu mailako goi bileran hartu zuen parte 2014ko irailean eta bere egin zuen “2050. urterako berotegi efektuko gasen isurketa %80 murrizteko konpromiso kolektiboa”.

2015eko abenduan Eusko Jaurlaritzak Pariseko COP 21 goi-bileran hartu zuen parte “The Climate Group” nazioarteko aliantza ordezkatzeko, eta 2016ko maiatzean klima aldaketari buruzko Hitzarmen globalari atxikitzea izenpetu zuen Lehendakariak. Hitzarmen horretan ezarritakoaren arabera, ingurumen politika arduratsua egin behar da, mundu osoko tenperatura igoerari industrializazio aurreko mailekiko 2°C-ko igoeratik behera eusteko.

New York-eko eta Pariseko goi-bileren ondotik, Euskadi nazioarteko erreferentzia eredu izan da konpromiso horretan. Europar Batasunak onartzen du eskualde aitzindarietako bat garela ekintza klimatikoan eta hazkunde ekonomiko jasangarrirako eredu bat dugula ingurumenarekiko errespetuarekin bat datorrena. Horrela, 1995etik hona %65 hazi da barne produktu gordina Euskadin; berotegi efektuko gasen isurketa, ordea, %20 jaitsi da aldi berean. Benetan, aurrera egin behar dugu berotegi efektuko gasen isurketa murrizten, baina aitortu beharra dago garapen jasangarriagorako eredu bat garatzen egindako ahalegina.

Gaur Euskadi Europako lehenengo bost herrialdeen artean dago eraginkortasun energetikoaren alorrean. Tradizio industrialeko herrialde bat gara, lortzen ari dena ekoizpen ekonomikoa eta berotegi efektuko gasen isurketa eraginkortasunez bereiztea. Jasangarritasun Energetikoari buruzko 4/2019 Legea onartu dugu Eusko Legebiltzarrean eta Jaurlaritzaren Kontseiluak ere Mugikortasun Elektrokoaren Plan Integrala onartu du 2018an.

Eredugarria izan da ibilitako bidea eta bide horrek beti izan du erakunde publiko guztien konpromisoa eta euskal gizarte osoaren atxikimendua.

Konpromiso kolektibo horrek beste urrats bat egin du, Eusko Jaurlaritzak erabaki baitu mundu guztiko erakunde politiko, sozial eta akademikoekin bat egitea eta klimaren eta ingurumenaren larrialdi egoera adieraztea, Gobernuak burututako politiketan premiazko ekintza handinahiak onartzeko konpromisoa iragartzeko.

Eusko Jaurlaritzak bat egin nahi izan du munduko erakunde politiko, sozial eta akademikoekin klimaren eta ingurumenaren gaineko larrialdi egoerako adierazpen formalean, karbonoan lurralde neutro bat lortzeko —trantsizio justu batek hori egiteko aukera ematen duen bezain pronto, eta edozelan ere, inoiz ez 2050 baino beranduago—, baita larrialdi klimatikoaren aurrean lurralde eta gizarte erresilienteago bat lortzeko ere.

Adierazpen honekin, Eusko Jaurlaritzaren asmoa da gai hau gure herriaren helburu nagusi gisa kokatzea. Asmoa ez da inolako alarmismo inkontzienterik anplifikatzea, baizik eta erronka honi behar duen dimentsioa eta arreta ematea. Berotze globala errealitate ukaezina da eta frogatuta dago hori arduraz kudeatzeak onurak ekarriko dituela ingurumenarentzat eta pertsonen osasunarentzat. Ekarriko ditu, baita ere, aukerak hazkunde ekonomiko jasangarriagoa lortzeko, jarduera-sektore berriak garatzeko eta kalitate handiagoko enplegu-aukerak sortzeko.

Euskadi prest dago aukera gisa egiteko aurre eraldaketa ekologikoaren eta energetikoaren erronkari. Gu murgilduta gauden trantsizio global horrekin batera, politika industrial, fiskala, energetikoa, ikerketakoa eta berrikuntzakoa erabili behar dira aldi berean, politika hori laguntza eta pizgarri izan dadin. Jakitun gara beharrezkoa dela osorik egokitzea garraioen sistemak, herri eta lurraldeak konfiguratzeko dinamika, baliabideen kudeaketa, industria edo nekazaritza eta abeltzaintzako ekoizpen-ereduak; edo apustu egin behar dela ekonomia zirkularraren alde. Jakitun gara, baita ere, aldatu egin behar direla baliabide naturalen kontsumo ohituretan familien eta norbanakoen eguneroko erabakiak.

Gure gain hartzen dugu erronka hori, garapen iraunkorraren aldeko Herri apustu globalaren esanahi sakonenean, eta geure egiten dugu egungo gure belaunaldiaren konpromisoa etorriko diren belaunaldiekiko. Konpromiso honek berekin dakar erabakiak hartzea eta berariazko baliabideak abian jartzea, Larrialdi Klimatikoari buruzko Adierazpenari erantzun eraginkorra emateko. Aldaketa klimatikoaren legearen aurreproiektuko 1go artikuluan jasotakoaren arabera, helburua da “2050 urterako, ekonomia erresilientean eta karbonoan neutroa den ekonomian aurrera egitea.” Eusko Jaurlaritzaren Kontseiluak onartutako Euskadiko ingurumena administratzeko lege proiektu berrian ere horrela jaso da eta hainbat gairen artean ezarri da obra publikoetan erabil behar den materialaren %40a birziklatua izatea ekonomia zirkularraren alde apustu egiteko. Bi arau horiek, zalantzarik gabe, funtsezko zeregina beteko dute aldaketa klimatikoaren munduko arazoa gainditzeko Euskadik egingo duen ekarpenean. Ekimen horiek jarraipena izango dute eta Eusko Jaurlaritzak bere konpromiso irmoa adierazten du kontuan izan dadin aldaketa klimatikoaren eraginaren perspektiba, politika publikoak diseinatzerakoan eta aplikatzerakoan. Horrela, emisioak murrizteko eta egokitze beharrezkoak diren neurriak bultzatuko dira, Larrialdi Klimatikoari buruzko Adierazpen hau betetzeko.

Era berean, ezinbestekoa izango da tresna eta baliabide ekonomikoak edukitzea, larrialdi klimatikoari aurre egiteko politikak garatzeko. Horretarako, Euskadiko Administrazio Nagusiak eta horri lotutako erakundeek urteko aurrekontuaren zati bat erabiliko dute aldaketa klimatikoan eragina izango duten jarduerak garatzeko, bai

aldaketa hori arintzeko bai aldaketa horri egokitzeko; eta EAEn aurrekontu orokorrek ekonomia- eta aurrekontu-arloko informazioa jasoko dute, ekintzen, neurrien, zerbitzuen eta programen arabera jarraitzeko informazio horri. Aldi berean, beharrezkoak diren akordio eta hitzarmenak sustatuko dituzte, autonomia ekonomiko finantzarioa errespetatuz, Euskadiren herri eta lurralde erakundeetan ekintza klimatikoa bultzatzera bideratutako programak eta ekintza zehatzak kofinantzatu ahal izateko.

Eusko Jaurlaritzak bat egiten du Adierazpen honekin, eta berretsi egiten du, era berean, "Klima 2050" klima aldaketaren estrategiarekiko eta 2030 estrategia energetikoarekiko konpromisoa; eta, aldi berean, adierazi nahi dugu uste osoa dugula Euskadi erronka horren aitzindari izan daitekeela eta erronka hori eraldaketa palanka bihur dezakeela ekonomia lehiakorragoa eta klimatikoki neutroagoa erdiesteko.

Mozio biak bozkatzen dira, EAJ-k aurkeztutakoak aldeko 3 boto lortzen ditu eta EH Bilduk aurkeztutakoak 4. Beraz, klima aldaketaren aurka konpromiso zehatzak hartzeko EH Bildu udal taldeak aurkeztutako mozioa onartzen da.

Las dos mociones se votan, la presentada por el PNV obtiene 3 votos a favor y la presentada por EH Bildu 4. Por tanto, se aprueba la moción presentada por el grupo municipal EH Bildu para la adopción de compromisos concretos contra el cambio climático.

Eta jorratzeko gai gehiagorik ez denez egon, Udalburuak amaiera eman dio Ekitaldiari eta bilkura 2019ko urriaren 16an, 20:30etan amaitu da. Akta hau alkateak sinatzen du; eta nik, Idazkariak, Fede ematen dut:

Y sin más asuntos que tratar, la presidencia da por finalizado el acto, siendo las 20:30 horas del 16 de octubre de 2019. La presente acta es firmada por el alcalde y por mí, el secretario que doy fe de ello.

---

**ALKATEA**

**IDAZKARIA**